

**KIROLEZBERDIN,
DISGAITASUNA eta
BURUKO GAITZA
GIZARTERATZEKO BIDEA**

Balio publikoa batera sortzeko
proiektuetarako Eusko Jaurlaritzaren
Elkarlan sarietarako
hautagaitza

ARIZMENDI IKASTOLA
Hezkuntza kooperatiba euskalduna

SARRERA

3.orr.

ZER DA KIROLEZBERDIN?

4.orr.

- Garun kalte hartua
- Jarduera fisiko egokitua
- Proiektuaren helburuak
- Proposamen didaktikoa
- Sekuentzia didaktikoaren faseak
- Ebaluaketa eta ondorioak

2016-2017 IKASTURTEKO HEDAPEN LANA

15.orr.

ONDORIOAK

21.orr.

SARRERA

Kirolezberdin esperientzia hau 2016ko ELKARLAN sarietara aurkezten dugu. Eusko jaurlaritzak, sari hauen bitartez, *herritar antolatuek aurkeztutako proiektuak saritzea* du helburu, zehazki *balio publiko partekatua sustatu eta gizarteko erronkak eta beharrak ase behar dituzte* proiektuek, ondorengo arloren batean: *osasuna, ingurumena, garapen ekonomikoa, ikasketa-kultura eta kohesio soziala*. Gure ustez, **Kirolezberdin** osasun eta kohesio soziala lantzen ditu, geroago ikusiko dugun moduan. Are gehiago, sari hauen azalpenean zera esaten da: *pertsona eta kolektiboen ahalduntze-prozesua sustatzeko gaitasuna erakutsi beharko dute ezaugarri gehigarri gisa*. Gure ustez, dudarik ez dago, esperientzi honek badu ezaugarri hori, proiektua burutzen ari den bitartean gure gazteak disgaitasunera, behar berezietara eta buruko gaixotasunera hurbiltzen direlako, zer den ezagutuz eta pertsona afektatuekin nola harremanatu ikasten baitute.

Ondoren aurkeztuko dugun esperientziak deialdiak markatzen dituen baldintzak betetzen ditu:

- a) Proiektua ezarrita dago. Momentu honetan hedapen lanari ekin diogu, hasiera batean landu genuena beste arlo batzuetara zabaldu nahi izan dugulako eta, dagoeneko, hedapen hori abian dago.
- b) Elkarlanean parte hartzeko proiektua da, eragile desberdinak parte hartzen dutelako, hots, Aita Menniko Garun kalte hartuaren saila, San Juan de Dioseko ospitala eta Arizmendi Ikastolako ZIG gela eta TAFYD heziketa zikloko ikasleria eta irakasleria.
- c) Berrikuntza honen bitartez, balio edo inpaktu publiko eta soziala sortzen da, geroago azalduko dugun moduan.
- d) Osasun eta kohesio sozial arlotan garatzen da, hau da, Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian identifikatutako jarduerar-arloak direlarik.

ZER DA KIROLEZBERDIN?

Gizakiok berezkoa dugun aniztasunean pertsona guztien berdintasuna bermatzea da esperientzia honen helburua. Hortik datorkio izenburua:

Kirolezberdin = Kirol ezberdin, kirolez berdin

Eta hau gazteriarekin egin nahi dugu eta egiten ari gara, etorkizunerako oinarri sendoak eraiki nahian.

2014-15 eta 2015-16 ikasturtean Aita Menni ospital psikiatrikoko *garun kalte hartua* duten sailarekin elkarlanean hasi ginen, gaitz hori duten pertsonekin jarduera fisikoa bultzatu asmoz. Honetarako, Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak daukan *Gorputz eta kirol ekintzen sustapena (TAFYD)* goi mailako zikloko ikasleria zeregin honetan inplikatzeko eta protagonistak bihurtzeko bide hezitzaile eta berritzailea zela pentsatu genuen. Ikasleak izango ziren garun kalte hartua duten pertsonekin jarduera fisikoa landuko zutenak. Testu inguru honetan, desgaitasuna gertutik ezagutzea eta desgaituekin harreman naturalak sortzea batetik, eta bestetik, ikasleek gelan ikasitakoa testu inguru zehatz eta orain arte eurentzat ez ohikoan gauzatzeko aukera izatea balio garrantzitsuak zirela pentsatu genuen.

Proiektuak oinarri sendo bat izan dezan, lehenik eta behin bilaketa bibliografikoari ekin genion, gure proiektua eta egindako proposamena kokatu eta justifikatu asmoz. Behin informazioaren analisia egin ostean, proiektuaren helburuak zehaztu genituen eta hauek lortu ahal izateko, proposamen didaktiko bat ere aurrera eramanez.

Amaitzeko, garrantzitsua iruditu zitzaigun ebaluazio bat egitea eta hobetzekoak identifikatzea, hurrengo urteetan proiektua berriro abian jartzeko beharrezko aldaketak zehaztuz. Ebaluazioan, proiektuan partehartu zuten bi erakundeek eta proposamenaren protagonista izan ziren ikasleek parte hartu zuten eta hobetzekoak bertatik jasotako iritzi eta iradokizunetatik ateratu ziren. Geroago azalduko dugun bezala, ebaluazioa oso positiboa eta esanguratsua izanenez, elkarlan hau hurrengo ikasturtean errepikatuz gogoia eman zigun. Are gehiago, 2015-16an egindakoa errefortzu bat izan da, beste arlo batzuetara hedatzeko abiapuntua izanik, hots, 2016-17 ikasturte honetan abian jarri duguna irudikatuz eta gauzatzeko.

Esan bezala, **lehen pausoa Garun kalte hartua zer den ezagutzea izan zen.**

Modu laburrean hauxe litzateke:

Garun kalte hartuari (GKH) buruz hitz egiten dugunean, pertsona baten bizitzan bat-batean gertatzen den garuneko lesioaz hitz egiten ari gara. Garun paralisia eta hartutako garuneko kaltearen arteko ezberdintasun nabarmenena garuneko lesioa jasotako denboralizazioan dago. Hala, garun paralisia, haurdunaldian (amak jasandako gaixotasunengatik), erditzean (plazentaren erorketagatik edo goiztiartasunagatik) edo jaio ondoren (infekzioak, gaixotasunak...) gertatu daiteke. Hartutako garuneko kalteak aldiz jaio ondoren ematen diren lesioak dira, aurrerago ikusiko dugu hauen etiologia zein den.

Garun paralisia, anomalia neuromotore bat da, garuneko lesio batek eragindakoa. Anomalia honek, gihar tonu altua eta mugimenduzko arazoak ekarri ditzake. Garun paralisia, mugimenduan eta posturan eragin zuzena duen anomalia bat da, Sánchez, J- k(2005) honela definitu zuen burmuin paralisia:

“la parálisis cerebral es un trastorno que afecta fundamentalmente al desarrollo del movimiento y de la postura, puede llevar asociado déficit sensorial, dificultades en la comunicación y el lenguaje, disminución intelectual, convulsiones, trastornos del aprendizaje y problemas de conducta tales como la inestabilidad emocional, introversión, inmadurez social e intolerancia a la frustración.”

Garun kalte hartua duen pertsona batek ere, aurretik aipatutako ezaugarriak izan ditzake. Adibiderik argiena trafiko-istripuek eragindako traumatismo kraneoentzefalikoak dira. Garuneko kaltearen beste arrazoi batzuk iktusak, garuneko tumoreak eta infekzioak dira. Guzti hauek, pertsonaren autonomian eragin zuzena izan dezaketelarik. Larritasunaren eta garuneko kaltearen ondorio posibleen aukera oso zabala da, izan ere, batzuk, guztiz osatzen dira; beste batzuk, berriz, egoera begetatiboan geratzen dira. Pertsonaren ahalmen edo gaitasun motorraren arabera, Aita Menni ospitalean ondorengo sailkapena kontuan hartzen da:

	FOKALITATE NEUROLOGIKOA	KONTROL POSTURALA	FUNTZIONALITATEA	DESPLAZAMENDUA	ERRESISTENTZIA BASKULARRA	KARDIO-
1 MAILA	Afektazio larria	Buruaren eta enborraren kontrolaren eza eserita	Gruarekin transferentziak. Maneiu posturalean dependentsia. Besoetan funtzionalitate eza. Gaitasun minimoa. Artikulazioetan erretrakzioak.	Gurpildun aulkia.	Fatiga larria. Tratamendu pasiboa.	
2 MAILA	Afektazio larria	Enborraren kontrol urria eserita. Zutik laguntza.	Transferentziak 2 pertsonarekin; edo 1kin, zailtasunarekin. Maneiu posturalean dependentsia. Gutxienez beso batean funtzionalitatea.	Gurpildun aulkia.	Fatiga larria . Tratamedu aktibolagundua denbora murriztuan.	

<p>3 MAILA</p>	<p>Afektazio moderatua</p>	<p>Enberraren kontrol egokia eserita.</p> <p>Zutik laguntza gutxirekin.</p>	<p>Gutxieneko laguntza maneiurik posturalean.</p> <p>Gutxienez beso batean funtzionalitatea.</p>	<p>Kamilararen inguruan edo laguntza batekin ibiltzea (bastoi edo kuatripodea).</p> <p>Luzerako ibilbideetarako gurpildun aulkia.</p>	<p>Fatiga handia.</p> <p>Ibilbide motzetan ibiltzeko gaitasuna.</p>
<p>4 MAILA</p>	<p>Gutxiengo afektazioa</p>	<p>Autonomia zutik</p>	<p>Autonomia maneiurik posturalean.</p> <p>Gutxienez beso batean funtzionalitatea.</p>	<p>Gutxiengo laguntzarik edo superbizioaz ibiltzea.</p> <p>Gurpildun aulkirik ez.</p>	<p>Erresistentzia kardiobaskularbaxua.</p> <p>Kanpoko ibilbideetan ahalmen murriztua.</p> <p>Masa muskularraren galera.</p>

Jarduera fisikoaren onurak

Bestalde, aktibitate fisikoaren onurak ere aztertu genituen, nabarmenak hauek direlarik:

Osasun egoera orokorrean eragin positibo anitzak ditu ariketa fisikoak: arnasketarako gaitasunean, hezur eta giharren egituretan, loditasunaren kontrolean, orekan eta koordinazioan, hipertsentsio eta kolesterolen kontrolean, lo egiteko gaitasuna eta alerta maila areagotuz.

Maila fisikoan, minak gutxitzen dira, erresistentzi kardiobaskularra areagotu, gihar indarra irabazi, zutik egoteko denbora gehitu eta gurrpil-aulkian egotekoa, berriz, murriztu egiten da.

Maila psikologikoan, urritasun kognitiboa hobetzeaz gain, antsietate, estresa eta sumingarritasuna gutxitzen dira, umorea hobetu eta ongizate sentazioa areagotu egiten da, autoestimua, enpatia eta erlazorako gaitasuna handiagotuz.

Jarduera fisiko egokitua

Aldi berean, jarduera fisikoa hartzailearen baldintzetara egokituak izan behar direla antzeman genuen. Pertsona hauen bizi-kalitatea hobetze aldera eta gizarte inklusioa lortze aldera, oso garrantzitsua da jarduera fisikoa beraien egunerokotasunean presente egotea. Jarduera fisiko hau, pertsonen gaitasun eta beharretara egokitu beharko da. De Pauw eta Doll Tepperrek (1989, Tejero, P 2012 an jasoa) jarduera fisiko egokitua horrela definitzen dute:

“todo movimiento, actividad física y deporte en los que se pone especial énfasis en los intereses y capacidades de las personas con condiciones limitantes, como discapacidad, problemas de salud o personas mayores”

Jarduera fisiko egokituak esparru ezberdinak landu ditzake, terapeutikoa, aisialdikoa, hezitzailea, lehiakorra eta elkarkorra (Ruiz, 2007; Sanz eta Reina, 2010). Eta lanketa honek, pertsonarengan onura fisiko, psikiko, afektibo eta sozialak eragingo ditu. Jarduera fisikoa, behar beharrezkoa da pertsonak osasuntsu mantentzeko eta hauen osasun eta ongizatea hobetzeko. Gainera, jarduera fisikoa egiteak hainbat gaixotasun ekidin ditzake eta onuragarria da pertsona guztientzat, edozein izanik beraien adina. Aurretik aipatutako guztiaz gain, bizi iraupen eta kalitatean eragin zuzena izango du.

Proiektuaren helburuak

Proiektu honekin lortu nahi genituen helburuak honako hauek izan ziren:

- Garun lesioen gaiarekin familiarizatzea eta formakuntza jasotzea.
- Aita Menniko eguneko zentroan dauden pertsonen egunerokotasuna (errehabilitazioa, jarduerak ...) ezagutzea eta beraiekin harremana izatea.
- Aita Menniko eguneko zentroan dauden pertsonekin jarduera fisikoa egitea, aisialdi aktiboago bat izateko aukerak zabalduz.
- Ikaskuntza zerbitzua metodologiaren bitartez, Arizmendi ikastolako ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesua esanguratsuagoa izatea

Proposamen didaktikoa

Proposamen didaktiko hau Arizmendi ikastolako TAFYD goi mailako ikasleetan fokatuta egon zen. Ikasleen konpetentziak eta gaitasunak garatu eta lantzeko proposamena izan zen, aurretik aipatutako helburuak lortzea ahalbideratzen zuelarik. Proposamen didaktiko hau garatzeko, kontuan izan genituen beraz, ikasleek garatu beharreko konpetentzia orokor eta espezifikokoak, hauek garatzeko landutako helburu didaktikoak eta lortu beharreko ikaste emaitzak.

Erabilitako **metodologia ikaskuntza zerbitzuan** oinarritu genuen. 1987. urtean Deweyek (Araújo eta Arantes, 2010ean jaso) aipatzen zigun erakunde hezitzaileek bizitzarako hezi eta prestatu behar zituztela ikasleak eta baita gizartean lan egiteko ere, esperientzia izanik ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren ardatza. Puig eta besteak (2006), ikaskuntza zerbitzua, ikaskuntza prozesuak eta komunitateari emandako zerbitzuak bateratzen dituen proposamen hezitzaile bezala definitzen dute. Bateratze hau ondo landu eta jositako proiektu bakarrean txertatuta egon behar da, non parte-hartzaileak formazioa jaso eta errealitatean dauden beharrei erantzuteko lanean ari diren aldi berean, errealitate hau hobetzeko xedearekin.

Ikaskuntza zerbitzuaren bitartez eginiko proiektuetan, inguruan dauden behar errealen gain eraikitzen da ikaskuntza.

Landu eta garatutako konpetentziak

1. Garun kalte hartua duten pertsoneri egokitutako saioen programazioa, diseinua eta gauzapena, aurretik ezarritako helburuak eta dinamika errespetatuz.
2. Programatu eta diseinatutako jardueren gidatzea eta dinamizazioa

Ikaste emaitzak eta ebaluazio irizpideak

1. Garun kalte hartua duten pertsonen ezaugarriak kontutan hartuz, saio ezberdinez osatutako sekuentzia progresibo bat egiteko gai da.
 - a. Hiru saioz osatutako sekuentzia bat egin da.
 - b. Saioetan erabiltzaileen gaitasun eta mugak kontutan hartu dira.
 - c. Oinarrizko jardueren kontrol posturala kontutan hartu da.
 - d. Beharrezkoak diren egokitzapenak aztertu dira.
 - e. Jarduera bakoitzaren aldagaiak identifikatu dira.
2. Taldearen ezaugarriak kontutan hartuz eta eskuragarri dauden giza baliabide eta material baliabideak kontuan hartuz, jarduerak antolatzekeo gai da.
 - a. Planifikatu diren jarduerak egingarriak eta errealitatera eramateko modukoak dira.
 - b. Kontuan izan dira eskuragarri dauden baliabideak eta hauei probetxuzko erabilera eman zaie
3. Partehartzaileekin komunikatzeko beharrezkoak diren estrategia eta teknikak erabiltzen ditu.
 - a. Erabiltzaileekin gertutasuna adierazi da.
 - b. Partehartzaileak ulertzeko eta beraien beharrak asetzeko ahalegina egin da.
 - c. Inteligentzia emozionalaren printzipioak kontutan hartu dira partehartzaileekin komunikatzerako orduan.
4. Partehartzaileen gaitasun eta egoera fisikoa kontutan hartzen du eta jardueren intentsitate eta egokitzapen egokiak aplikatzen ditu.
 - a. Planifikatutako jarduerak ebaluatu ditu.
 - b. Planifikatutako jarduerak ebaluatu ostean, proposamen berriak egin ditu
5. Saioan zehar ematen dituen azalpenak argiak dira.
 - a. Saioaren dinamizazioan rol aktiboa eta arduratsua hartu da.
 - b. Taldean giro atsegina egoteko beharrezko estrategiak erabili dira.

Sekuentzia didaktikoaren FASEAK (2014-15 eta 2015-16 ikasturteak)

Sarrera fasea

Aita Menni elkartekoekin hainbat bilera egin ostean, eginbeharrekoak adostu genituen. Hortaz, sarrera fasean, ikasleekin proiektuaren ardatzak elkarbanatu ziren. Sekuentziaren xedea eta helburuak zeintzuk izango ziren azaldu genien eta ikasleek izan zezaketen proposamenak aintzat hartu ziren.

Garun kalte hartua eta Aita Menni ospitalearen nondik norakoak ezagutzeko eta proiektua hobeto kokatzeko ordu t´erdiko formazioa jaso zuten ikasleek. Horretarako, Aita Menni ospitaleko **Iñigo Urrutikoetxea** psikologoa etorri zen eta **Introducción al daño cerebral** hitzaldia eman zuen.

Garapen fasea

Behin proiektuaren ardatzak ezagututa eta ikasleen ekarpenak jasota, beharrezko ezagutzak eraikitzeke tailer ezberdinak antolatu genituen. Guzti hauek, beraien ezagutzak aberasteko eta azken ekoizpena lortzeko behar beharrezkoak izan ziren.

Lehen Tailerra

Alteraciones motoras en personas con DCA (daño cerebral adquirido). Garun kalte hartua duten pertsonentzako jarduera fisiko egokitua planifikatzeko, beharrezkoa da beraien ezaugarri eta gaitasunak ondo ezagutzea. Hortaz, Aita Menni zentruan lanean diharduen **Ibane Barrena** fisioterapeuta etorri zen hitzaldia ematera. Bertan jasotako ezagutzak, ikasleek beraien saioen programazio eta diseinuan sartu zituzten.

Bigarren Tailerra

Zer jarduera fisiko proposatu ditzakegu garun kalte hartua duten pertsonekin lantzeko? TAFYD zikloan emandako materia ezberdinak kontutan hartuta eta lantzen diren jarduera fisikoetatik egokienak hautatuz eta justifikatuz jarduera proposamenak egin zituzten ikasleek.

Hirugarren tailerra

Lan taldeak sortu ziren gaiaren interesen arabera eta **proposamen didaktikoak** diseinatu zituzten ikasleek. Talde bakoitzak, garun kalte hartuak dituzten pertsonen gaitasun motoreak kontutan hartuta, 3 saioz osatutako sekuentzia bat diseinatu zuen.

Aukeratutako jarduera fisikoak, **TRX egokitua, igeriketa egokitua eta BOCCIA** izan ziren. Beraz, hiru jarduera hauen inguruko saioak diseinatu zituzten.

Laugarren tailerra

Aita Menniko eguneko zentroa ezagutzen. Tailer honen bitartez, garun kalte hartua duten pertsonak egoten diren eguneko zentroa ezagutu zuten. Beraiek egunerokotasunean egiten dituzten jarduerak ezagutu eta erabiltzen dituzten makinaria eta material ezberdinak aztertu zituzten ere bai. Horretaz gain, ikasleek, beraien saioak aurrera eraman dituzten pertsonak ezagutu zituzten, beraien gaitasun eta mugak identifikatzeko.

Aita Menni elkartekoekin egindako kronograma kontutan hartuta, ikasle taldea, beraien proposamena gauzatzen hasi zen. Batzuk igeriketa egokituko saioak eman zituzten, beste batzuk TRX egokituko saioak eta azkenik, beste talde batek boccia saioak prestatuko zituen.

Prozesuan zehar, aukera egon zen programatu eta diseinatutako saioak beharretara moldatzeko. Beraz, behatutakoaren inguruko hausnarketa egitea ezinbestekoa izan zen ondoren hobekuntzak proposatu ahal izateko.

Hausnarketa fasea

Egindakoaren eta ikasitakoaren inguruko hausnarketa egin zuten. Ondo ateratakoak edo indarguneak kontutan hartu zituzten; baita ahulguneak edo hobetzekoak ere. Hausnarketa honetatik ateratako ondorioekin azken ekoizpeneko balorazioa egin zuten.

Azken ekoizpena

Azken ekoizpena bi atal ezberdinetan banatu genuen:

- Alde batetik, ikasle talde bakoitzak egindako lanketaren proiektua aurkeztu zuen. Horretarako lan gidoi bat jaso zuten eta, puntu guztiak aintzat hartuta, txostena osatu ere.
- Bestalde, egindako elkarlanari amaiera emateko BOCCIA txapelketa bat antolatu zuten Aita Menni elkartekoekin eta GSR zaharren egoitzako kideekin batera. Txapelketa egun bakarrekoa izan zen, Ibarra kiroldegian kokatuz. Amaieran diploma banaketa egin zen ere bai. Txapelketa honen antolaketa ere ikasleen ardura izan zen, irakaslearen laguntzarekin.

Ebaluaketa

Proiektua egin ostean, beharrezkoa ikusi genuen proiektuaren ebaluazio bat egitea, hobetzekoak identifikatu eta emandako fruituak aztertzeko. Ebaluaketa hau baliagarria izango zen, gainera, hurrengo ikasturtean proiektuaren nondik norakoak identifikatzeko eta honen inguruko beharrezko erabakiak hartzeko.

Ebaluazioa egin ahal izateko, behaketan eta ikasleen azken ekoizpeneko txostenean oinarritu ginen. Behaketa bi ikuspuntu ezberdinetatik egin zen; alde batetik, Arizmendi ikastolako irakaslearen partetik eta bestetik, Aita Menni erakundeko fisioterapeuten partetik (saio guztietan egon ziren presente).

Behaketatik ateratako informazioari dagokionean, puntu hauek goraipatuko genituzke:

- Arizmendi ikastolako irakaslearen partetik:
 - Ikaskuntza esanguratsua eman da, ikasleek teorian ikasitakoa praktika errealetan frogatzeko eta ikertzeko aukera izan dutelarik.
 - Ikasleak motibatuta egon dira, ikaste prozesu aktiboa izan dutelarik.
 - Saioen kalitatea hobetu daiteke, ikasleek saiorik saio egindakoaren inguruan hausnartu eta hobetzeko gaitasuna gehiago landu daitekeelarik.
 - Gertutasun handia egon da ikasle eta erabiltzaileen artean.
 - Oso giro atsegina sortu da.
 - Aita Menniko erabiltzaileak ere pozik ikusi dira.
 - Saio batzuk ikasturteko orduetatik kanpo eman behar izan dira, hortaz hurrengo urterako denboralizazioa hobetzea komenigarria da.

- Aita Menniko fisioterapeuta eta koordinatzailearen partetik:
 - Oso esperientzia aberasgarria izan da.
 - Erabiltzaileak oso gustura egon dira, errepikatzeko irrikaz geratu dira.
 - Proposatutako jarduerak egokiak izan dira. Hurrengo ikasturtera begira, gehiago sartu daitezke, baita kanpo jarduerak ere, hala nola, bidegorritik paseotxoak.
 - Azken ekoizpenari begira, kirola kalera bezalako ekitaldi ikusgarri bat egitea proposatu da.

- Ikasleen azken ekoizpeneko txostenetik ateratako balorazioak;
 - o Oso gustura aritu dira.
 - o TAFYDen egindako lanketarik esanguratsuenetakoa iruditu zaie.
 - o Oso garrantzitsua da errealitatea ezagutzea.
 - o Errepikatu behar dela uste dute.

Ondorioak

Egindako lanketa eta proiektua kontutan hartuta, 2014-15 ikasturtean partaide guztiok egin genuen balorazioa oso positiboa izan zen. Lehen esperientzia izateko emaitzak oso onak izan ziren eta orduan ez genuen zalantzarik izan hurrengo urtean errepikatuko genuela. Ebaluaketatik ateratako hobetzekoak kontutan hartuta, proiektuaren ardatza hartuz, beharrezko moldaketak egin eta 2015/2016 ikasturtean bigarren esperientziarekin hasi ginen berriro, horrela adostuta, Aita Menni eta Arizmendi Ikastolaren artean.

Hasiera batean jarri genituen helburuak bete zirela uste genuen. Alde batetik, gure ikasleek lortu zuten garun kalte hartuaren ezaugarriak ezagutzea eta beraiekiko sentsibilizatzea. Aita Menniko bi adituen partetik jasotako formazioa oso baliagarria eta beharrezkoa izan zen helburu hau lortzeko. Ikaskuntza zerbitzua metodologia abian jartzea lortu genuen, honekin batera Arizmendi ikastolako ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesua esanguratsuagoa izanik. Aita Menniko eguneko zentroan dauden pertsonekin harreman oso estua izatea lortu genuen, gertutasuna eta alaitasuna nagusi izan zirelarik. Azkenik, proiektuaren beste helburu nagusi bat ere lortu genuela iruditzen zitzaigun, Aita Menniko eguneko zentroan dauden pertsonekin jarduera fisikoa egitea, aisialdi aktiboago bat izateko aukerak zabalduz.

2015-16an proiektua errepikatu genuen, aurreko ikasturtean egindakoan oinarrituta. Bere ebaluazioa hobea izan zen alde bietatik. Aurreko eskarmentuan oinarrituta, denbora gehiago eskaini genion proiektuari eta lasaiago ibili ginen gaia lantzen. Ikasleak asko inplikatu ziren eta Aita Menniko egoiliarrek gogobetetasun maila oso altua azaldu zuten. Ondorioz, proiektu hau TAFYDeko curriculumean sartzea erabaki genuen.

2016-2017 IKASTURTEKO HEDAPEN LANA

Aurreko ikasturtean egindakoa aintzat hartuta, ikasturte honetan beste kolektiboetara zabaldu nahi izan dugu. San Juan de Dios ospital psikiatrikoak eskatuta, bere egoilarrekin jarduera fisikoa diseinatzeari, programatzeari eta martxan jartzeari ekin diogu. Honez gain, hirugarren kolektibo bat sartuko dugu proiektuan: Ikastolako Zereginetarako Ikasketa Gelako ikasleak. ZIG gelan disgaituak eta apendizaietan atzerapenak dituzten gazteak aritzen dira, hau da behar bereziak dituzten ikasleak, alegia. Kasu honetan ere jarduera fisiko sistematizatu, egokitua eta programatutakoa egiteak onurak baino ez ditu lortuko.

Beraz, gure Tafiudeko ikasleek jarduera fisikoa disgaitasun desberdinak dituzten pertsonen egokituak diete: garun kalte hartua, buruko gaitza eta behar bereziak dituzten pertsonen lan inklusiboa egingo dute ahalik eta gehien gizarteratzeko. Heziketa zikloko gelan ikasten dutena, testu inguru erreal batetan praktikatuak dituzte. Gure abiapuntua da, gainera, kirolak zer esan handia duela gizarte inklusibo batean. Gure ikasleak honekiko sensibilizatu behar ditugu eta tresnak eskaini ere horrelakoetan behar bezalako lana egin dezaten eta, garrantzitsuagoa dena, hori jarrera egokiaz, eraginkorraz eta esanguratsuz egitea.

Jakin badakigu azken urteetan aurrera pausu nabariak eman diren arren, oraindik ere gizakiaren oinarriko eskubideak ez direla guztiz errespetatzen. Disgaitasunak eta behar bereziak dituzten pertsonak herriko kirol saretik kanpo geratzen dira sarri eta Arrasateren kasuan ere aipatutakoa gertatzen da, hein handi batean. Egia da, Aita Menni edota San Juan de Dios ospitaletako erabiltzaileek haien egoitzetan kirola eta jarduera fisikoa praktikatzeko aukera dutela, baina hantxe, egoitzan, ez beste guztiok egiten dugun tokietan. Arizmendi ikastolan kirolaren balioa praktika hutsetik askoz haratago doala sinisten dugu, norberaren garapen integralerako (garapen fisiko, afektibo zein sozialerako) eta batez ere, pertsona guztien INKLUSIO-rako tresna ezin hobea delarik.

Azken finean, kirola eta jarduera fisikoa gizartea eraldatzeko bide apropos bezala ikusten dugu. Horrexegatik, kirol egokituari toki esanguratsua eman nahi diogu heziketa ziklo honen curriculumean eta horrexegatik ere aipatutako kolektibo horiekin guztiekin kirol eta jarduera fisikoko saio praktikoak eta oso landuak egin nahi dugu. Ezin dugu baztertu, gainera, ezgaitasun arloa, orokorrean, lan

mundua ere badela eta Tafyd egin duten profesionalek lan aukera bat hor dutela.

Hemen planteatzen dugun proiektu honetarako premisa hauetatik abiatzen gara:

- Gizarte inklusibo bateruntz joan nahi badugu, gizarteak berak disgaitasuna eta arazo bereziak dituzten kolektiboak aintzakotzat hartu behar ditu, bigarren mailako hiritartasuna ekiditzeko eta gure artean dagoen aniztasuna balore gisa hartzeko.
- Gure gizartean disgaitasunaren eta arazo berezien trataeraz ezjakintasun handia dago eta honek baztertzea ulertuezintasuna eta onarpenik eza ekartzen ditu gizarte barruan. Muga hauek gainditzen ez badira, kolektibo horien estigmatizazioa probokatzen da eta, honekin batera, urruntzea eta ahaztea.
- Proiektu honek muga horiek apurtzea bilatzen du eragile desberdinen elkarlana bultzatuz: disgaitasuna, behar bereziak eta buruko gaitza duten pertsonak, honetara dedikatzen diren zerbitzu enpresek eta gazteen hezkuntza bere gain hartzen duen irakaskuntza zentroak-ikastolak-, bat eginik eta kirola honetarako tresna bihurtuz, desberdina dena normaltasunez hartzea bilatuko dute.
- Esanguratsua iruditzen zaigu, gainera, proiektu honetan gazteek hartzea paper berezia. Aipaturiko esparru hauek, disgaitasuna, behar bereziak eta buruko gaitza, ez daude gazteengandik hurbil; aitzitik, bi mundu hauek oso gutxitan gurutzatzen dira; normalean gazteentzat “ez dira esistitzen”. Proiektu honen bitartez, elkar ezagutza eta elkar bizitzea bilatuko ditugu eta hau zeharo beharrezkoa da gizarte inklusiboruntz joateko bidean.

Helburuak

-Proiektua aurrera eramatean, TAFYD-eko ikasleekin lortu nahi diren helburuak:

- Garun kalte hartua, behar bereziak eta buruko gaixotasunak ezagutzea, haiekin familiarizatzea eta formakuntza jasotzea.
- Garun kalte hartuak, behar bereziak eta buruko gaixotasunek sortzen dituzten beldurrak eta estigmak uxatzea.
- Garun kalte hartua, behar bereziak eta buruko gaixotasunak duten pertsonen egunerokotasuna (errehabilitazioa, jarduerak ...) ezagutzea eta beraiekin harremana izatea.
- Ikaskuntza zerbitzua metodologiaren bitartez, Arizmendi ikastolako ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesua esanguratsuagoa izatea.

- Lan esparru berriak sortzea, kirol egokituarekin zerikusiak dutenak. Honekin lotuta, TAFYD-eko ikasleak ziklo amaierako praktika aldia Aita Mennin edo San Juan de Dios ospitale psikiatrikoan egiteko aukera izango dute.

-Proiektua aurrera eramatean, saioetan parte hartuko duten pertsonekin lortu nahi diren helburuak:

- Aita Menni eta San Juan de Dios ospitalean dauden pertsonekin jarduera fisikoa egitea, aisialdi aktiboago bat izateko aukerak zabalduz.
- Osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea ariketa fisikoaren bidez.
- Jarduera fisikoak eta kirolak duen eragin sozializatzailea bultzatzea horretarako prestaturiko jardueren bidez.
- Saioetan parte hartzen duten pertsonen psikomotrizitateko alderdi orokorrak hobetzea.
- Autonomia bultzatzearekin lotuta dauden gaitasun motorrak lantzea.
- Sedentarismoak sor diezazkieketen gaixotasun eta umore aldaketei aurre hartzea.
- Ezgaitasunak dituzten pertsonengan bizimodu osasungarria eta jarduera fisikoa egiteko ohitura bultzatzea.

-Proiektua aurrera eramatean gizartearekin lortu nahi diren helburuak:

- Pertsona guztion inklusioan oinarritutako gizartea bultzatzea.
- Herriko jarduera fisiko eta kirol egokituko eskaintza handitzea eta aberastea.
- Azken ekitaldi handi bat eginez, jarduera fisiko eta kirol egokitu herritarren artean ezagutzera ematea.

Azken finean, proiektu honen jomuga nagusiak ondorengo 3 baieztapenetan laburbiltzen dira:

- Gizarte anitza eraikitzea, pertsona guztien inklusioan oinarritu eta berdintasun eskubidea bermatzen duena.
- Oraindik ere gizartean nahiko ezkatututa dagoen kirol egokituaren promozioa egitea.
- Arizmendi ikastolan bultzatutako konfiantzaren pedagogian oinarrituta, gorputz eta kirol ekintzen sustapeneko goi mailako zikloko ikasleen ikasketa prozesua esanguratsua eta baliagarria izatea

Denbormalizazioak

Hona hemen, elkarlan bakoitzari zuzenduta proposatzen ditugun denbormalizazioak:

TAFYD-AITA MENNI:

- TAFYD-eko ikasleak gaiaren inguruko formakuntza jasoko dute, Aita Menniko profesionalen bitartez:
 - o Azaroak 3, osteguna, 10:00etatik 11:00etara: Garun kalte hartuari sarrera.
 - o Azaroak 8, asteartea, 10:00etatik 11:00etara: Garun kalte hartua duten pertsonen asaldura motorrak.

- Aita Menniren eguneko zentrora bisita, bertako erabiltzaileekin harreman zuzena izateko:
 - Azaroak 10, osteguna, 10:00 etatik 11:00etara: 8 ikasle (bocciakoak).
 - Azaroak 17, osteguna, 10:00 etatik 11:00etara: 8 ikasle (TRXekoak).
 - Azaroak 22, asteartea, 10:00etatik 11:00etara: 8 ikasle (igeriketakoak).

- TAFYD-eko ikasleek diseinatu eta antolatuko dituzten jarduera fisiko saioak aurrera eramatea:
 - 1.go jarduera fisikoa IGERIKETA izango da eta 8 ikasle igerilekura gerturatuko dira, Aita Menniko erabiltzaileekin 3 saio egitera:
 - Azaroak 22, asteartea, 10:30etatik 11:30etara.
 - Azaroak 24, osteguna, 10:30etatik 11:30 etara.
 - Azaroak 29, asteartea, 10:30etatik 11:30etara.
 - Abenduak 1, osteguna, 10:00etatik 11:00etara: Igeriketako saioak antolatu dituen ikasle taldea Aita Menniren eguneko zentrora gerturatuko da, saioetan parte hartu dutenen feedback-a jasotzera (hobekuntza proposamenak, inkesta txiki bat...) eta agurtzera.

 - 2. jarduera fisikoa TRX izango da eta TAFYD-eko ikasle taldeak antolatutako saioak Ferixalekuko gimnasioan eramango dira aurrera:
 - Abenduak 13, asteartea, 11:30etatik 12:30etara.
 - Abenduak 15, osteguna, 10:00etatik 11:00etara.
 - Abenduak 20, asteartea, 11:30etatik 12:30etara.
 - Abenduak 21, asteazkena, 10:00etatik 11:00etara: TRX- eko saioak antolatu dituen ikasle taldea Aita Menniren eguneko zentrora gerturatuko da, saioetan parte hartu dutenen feedback-a jasotzera (hobekuntza proposamenak, inkesta txiki bat...) eta agurtzera.

- 3.go jarduera fisikoa BOCCIA izango da eta TAFYD-eko ikasle taldeak antolatutako saioak Ferixalekuko gimnasioan eramango dira aurrera:
 - Urtarrilak 17, asteartea, 11:30etatik 12:30etara.
 - Urtarrilak 24, asteartea, 11:30etatik 12:30etara.
 - Urtarrilak 27, ostirala: BOCCIA txapelketa egingo da Ibarra kiroldegian, GSR-ko erabiltzaileekin batera.
 - Urtarrilak 31, asteartea, 10:00etatik 11:00etara: Boccia-ko saioak antolatu dituen ikasle taldea Aita Menniren eguneko zentrora gerturatuko da, saioetan parte hartu dutenen feedback-a jasotzera (hobekuntza proposamenak, inkesta txiki bat...) eta agurtzera.

TAFYD - GAZTELUPE GUNeko ZIG GELA:

- TAFYD-eko ikasleak ZIG gelaren inguruko formakuntza jasoko dute, bertako profesionalen bitartez.
 - Urriak 24, astelehena, 11:30etatik 12:30etara: Zer da ZIG gela? eta bertako ikasleen ezaugarriak.
- Arizmendi Gaztelupe-ko ZIG gelara bisita, bertako ikasleekin harreman zuzena izateko eta haien gustoko jarduera fisiko eta kirolen inguruan aritzeko:
 - Azaroak 4 ostirala, 9:00 etatik 10:00etara: 8 ikasle.
 - Azaroak 7, astelehena, 10:30 etatik 11:30etara: 8 ikasle.
 - Azaroak 11, ostirala, 10:30etatik 11:30etara: 8 ikasle.
- TAFYD-eko ikasleek diseinatu eta antolatuko dituzten jarduera fisiko saioak aurrera eramatea. Horretarako, ZIG gelako ikasleak Ferixalekura gerturatuko dira astelehenero.
 - Urriaren 14tik – Otsailaren 20ra arte.
 - Azaroaren 14tik Abenduaren 19ra: Joko-jolas kooperatiboak.
 - Urtarrilaren 9tik Otsailaren 27ra: Kirol eta jolas alternatiboak.
 - Martxoaren 6tik Ekainaren 19ra: Kirol egokitua.
- Otsailaren 20an ikasleen praktika aldia hasiko da, honen aurrean honakoa planteatuko da:
 - Borondatez aurkezten diren ikasleak ekintzekin jarraitzea.
 - Arizmendin praktika aldia egingo duten ikasleak ekintzekin jarraitzea.
 - Ekintzen ardura TAFYD-eko lehenengo mailako ikasleek hartzea.

TAFYD - SAN JUAN DE DIOS OSPITALE PSIKIATRIKOA:

- TAFYD-eko ikasleak gaiaren inguruko formakuntza jasoko dute, San Juan de Dios ospitale psikiatrikoko profesionalen bitartez:
 - Urriak 14 ostirala, 8:00etatik 10:00etara: San Juan de Dios ospitale psikiatrikoko, Emilio Martin psikologoaren bidez.

- TAFYD-eko ikasleak, 8ko ikasle taldeetan banatuta, San Juan de Dios ospitale psikiatrikoa ezagutzera gerturatuko dira. Bertan, 4ko bi taldeetan zatituko dira, lehenengo orduan talde bat bertako erabiltzaileak jarduera fisikoa nola egiten duten behatzen arituko dira, bitartean beste taldeak bertako profesionalen bitartez formakuntza teorikoa jasoko dute. Bigarren orduan aldiz, ikasle taldeek eginbeharrekoak trukatuko dituzte.
 - Urriak 21, ostirala, 8:00 etatik 10:00etara: 8 ikasle
 - Urriak 28, ostirala, 8:00 etatik 10:00etara: 8 ikasle
 - Azaroak 4, ostirala, 8:00etatik 10:00etara: 8 ikasle
- TAFYD-eko ikasleak San Juan de Dioseko terapeuta taldean integratuko dira, jarduera fisiko eta kiroleko monitore animatzaile bezala. Horrela, astelehenero eta ostiralero, ordu batez, 8 ikaslez osatutako taldeak San Juan de Dios ospitalera gerturatuko dira, bertako lan taldean integratzeko.
 - Azaroak 7tik – Otsailaren 20ra
- Otsailaren 27tik aurrera ikasleak praktika aldia hasiko dute. Honen aurrean honakoa proposatzen da:
 - San Juan de Dioseko ospitaleak TAFYD-eko ikasleei praktika aldia bertan burutzeko aukera emango die.
 - Praktika aldia haratago, asteroko ekintzekin jarraitu nahi duten ikasleak, horretarako aukera izango dute.

Azken jaia

TAFYD-ekin elkarlanean arituko diren Aita Menni, San Juan de Dios ospitalea, Arizmendi ZIG gela eta GSR 3.adineko egoitzarekin ekitaldi handi bat egitea aurreikusten da. Jarduera fisikoa eta kirol egokitua kalera atera nahi ditugu, ezgaitasunak dituzten pertsonen jarduna bisibilizatzeko, oraindik ere indarrean dauden estigmei aurre eginez. Horrela, otsailaren 17an jarduera fisiko eta kirol ezberdinen topaketak antolatuko dira Arrasateko instalakuntza publikoetan, non herritar guztiek parte hartzeko aukera izango duten. Aurreko urteetan egindakoan oinarrituta, txapelketak, diplomen banaketa eta merienda egongo dira, ikasturtean zehar proiektuan aritu diren artean –gaixoak, afektatuak eta ikasleak- elkarbizitza bultzatuz. Aurten, pertsona gehiago bildu nai dugu, kirol egokitua toki aproposa emanaz.

ONDORIOAK

Zalantzarik ez dago planteatzen dugun **KIROLEZBERDIN** proiektu honetan *aniztasunaren berdintasuna* azpimarratzen dugula, hau da, aniztasuna onartuz, eskubideen berdintasuna aitortzea. Pertsona guztiak, bere egoera fisikoa zein mentala egokitzapenerako kontuan hartuta, baina trataerarako eta gizartearen dinamikan parte hartzeko inolako desberdintasunik egin gabe, maila bereko hiritarrak direla da gure abiapuntua eta, ondorioz, edozein hiritar bezala sentitu behar dira: eskubide eta betebeharrak berdinak, onarpen berdina, errespetu berdina, trataera berdina.

Garbi dago desgaitasuna, behar bereziak eta buruko gaixotasuna gure gizartean normaltasunez integratzea direla, besteak beste, erronka inportanteak. Helburu hau lortzeko, kirola eta aktibitate fisikoa tresna eraginkorrak, naturalak, osasuntsuak, egingarriak dira.

Gizarte eta hezkuntza zentroen arteko harremanak erraztea, sendotzea, arakatzea pauso kualitatibo garrantzitsua da ikasleak bizitzarako prestatu nahi baditugu eta hau Lanbide heziketan esanahi osoa dauka, etapa honen izaerari erreparatuz gero.

Proiektu honek Gipuzkoako gizarteari eskeintzen dion balio-proposamena nabaria da: pertsonen aniztasunari trataera egokia ematea eta gizarte inklusiboagoa lortzea. Baita, gizarte kohesionatuagoa ere, belaunaldi desberdinen arteko proposamena eta lanketa delako. Proiektuan, gure gertuko ospital psikiatrikoetan bakarrik gauzatzen badugun arren, planteamendua beste toki batzuetara hedatu daiteke eta horrela eragin nabaria izan sektore hauetan.

Ezin dugu ahaztu, gainera, afektatua den kolektiboko kideak ez direla asko aldatzen urtez urte eta horrelako proiektua denboran mantenduz gero, ohitura osasuntsuak lantzen ditugun neurrian, aipaturiko giza taldeengan hobekuntza fisiko eta psikikoak emango direla. Hau da, eragin zuzena izango duela partaideen osasunean, honek daukan balioarekin eta suposatzen duen onurarekin, bai norberarentzat bai gizartearentzat ere. Osasun hobe bat lortzeak ondorio nabaria izaten du beste arloetan: animoan, umorean, harremanetan, loaldian, autoestimuan,...

Modu berean, eragin soziala begi bistakoa da. Garun kalte hartua duten gaixoak, programa honetan parte hartuta, bere aisialdia osasuntsuagoa eta eraginkorragoa bihur dezake. Buru gaitza daukanak, berriz, jarduera fisikoa edota kirola praktikatzerakoan ongizatea igerriko du eta hainbat sintoma hobetu daitezke. Behar bereziak dituzten ikasleak, berriz, integratuagoak, aisialdi erakargarriagoa eta onura fisiko zein psikikoak ere igerriko dituzte. Hau guztia horrela izateak ekarriko du pertsona hauek gizarteratuagoak sentitzea, harremanak gehiago landuta izatea, fisikoki eta mentalki hobeto sentitzea eta horrela, hau guztia “gurpil zoro” positiboa bihurtuko da.

Bukatzeko, Tafydeko ikasleentzat esperientzia esanguratsua, erreal, aberatsa suertatuko dela zalantzarik ez dago. Euren profesionaltasunari begira, konpetentzia teknikoak eta zeharkakoak landuko dituzte eta seguraski, heziketa zikloa egin duten bitartean, gehien gogoratuko duten aktibitateetarikoa izango da hau. Eta hau gutxi bada, belaunaldi desberdinen arteko elkarbizitza ere bultzaten dugu.

Oharra: Proiektu hau hobeto ulertzeko aurkezpen bat egitu dugu, azken aurreko diapositiban bideoa dago.